

ADOS AHOLKU BATZORDEAREN ZIRKULAR INFORMATIBOA

Nº 1

2025eko Abendua



ADOS AHOLKU BATZORDEAK BERE JARDUERARI EHINGO DIO BERRIRO

Urteko azken lauhileko honetan, ADOS Batzordea abian jarri da VII. Agenda ezartzeko, 2023-2026 Jarduera Programaren azken fasearekin bat etorritz.

Urriaren 25ean, bilera bat egin zen, kideen arteko harremanari berriro ekiteko, komunitate islamikoetako kide berriak sartzeko, konpondu gabeko gaiak egunean jartzeko eta jarduera berriak aurkezteko.

Era berean, bileran ongietorria eman zitzaizen Ayman Gaafar Eleraky eta Alfousseny Doucoure Djikineri, batzordeko kide berriak baitira.

Aurkeztutako beste berritasun bat batzordearen nortasun korporatiboarekin lotuta dago: logo berria, zirkularretarako irudi berria eta informazio-liburuxka berria, guztia inspirazio-iturri anitzetatik diseinatu:

islamiar eta euskal sinbologiak, natura, humanismo artistikoa eta Eusko Jaurlaritzaren Aniztasun, Bizikidetzeta eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritzaren lan-ildo desberdinekin lotutako kolore-kode transbertsala.

Indarrean dagoen agendaren azken zati honetan egin nahi diren jardueren artean, garrantzi eta interes berezikoa da musulmantzat Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) ikerketa bat, Euskadiko musulmanen beharrak ezagutu eta ezagutaraztea bilatuko duena. Ikerketa horren xehetasunen berri emango da zirkular honen beste atal batean. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da diagnostiko horren emaitzak oinarri izango direla Batzordearen 2027-2030 urteetarako ibilbide-orria sortzeko, ADOSek lanean jarraituko baitu bere izateko arrazoia zehazten duten helburuak lortzeko.

IKERKETA: EUSKADIKO BIZTANLE MUSULMANEN BEHARREI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Beste atal batean aurreratu egin zen bezala, eta 2023-2026 Jarduera Programaren VII. Agendako konpromisoetako bat betez, Eusko Jaurlaritzaren Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritzak Ikuspegiari, Immigrazioaren Euskal Behatokiari, Euskadiko biztanleria musulmanari buruzko ikerketa bat egitea eskatu dio. Ikerketaren bidez, diagnostiko bat egin nahi da, EAEko musulmanek beren bizitza pertsonalaren eta familia-bizitzaren garapenari dagokionez dituzten beharrak identifikatzeko, bai eta euskal gizarteko bizikidetzarekin eta integrazioarekin lotutako alderdiak identifikatzeko ere.

Horretarako, egungo errealitate sozio-erlijiosoaren mapa eguneratzeko datu estatistikoak berrikusteaz gain, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egingo dira euskal komunitate islamikoetako informatzaileekin eta pertsona musulmanekin lotura duten pertsona eta profesionalekin. Eremu-ikerketa 2026ko lehen seihilekoan egingo da, eta azken txostena urte bereko azarorako egitea aurreikusten da. Espero da emaitzak oinarri izatea eta Batzordearen hurrengo Jarduera Programa diseinatzeko lagungarri izatea.

EUSKADIKO ERLIJIOEN ARTEKO KONTSEILUA: SORTZEKO PROZESUAN DAGOEN EGITURA BERRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko ekainaren 29ko 8/2023 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, EAEko Erlijioen arteko Kontseilua erlijio-konfesio eta -komunitateekin elkarrizketa eta lankidetzat instituzionalerako organo gisa sortuko da, erlijioen eta kultuen arteko bizikidetzat zaintzeko eta sustatzeko, erlijio-aniztasunarekiko eta erlijio-adierazpen guztien eskubide eta betebeharrekin errespetuan oinarrituta.

2025. urtean, Eusko Jaurlaritza, Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritzaren bitartez, aipatutako Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretua prestatzen hasi da. Prestatze-prozesu horretan, Euskadin dauden erlijio-konfesio nagusietako ordezkariekin kontrasteak egitea izan da jardunetako bat:

eliza katolikoaz gain, errotze abarmeneko estatusa dutenak eta presentzia esanguratsua dutenak: Kristautasun Ebanjelikoa, Islama, Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Eliza, Jehovaharen Lekukoak, Budismoa, Errumaniako Eliza Ortodoxoa, Bahá'í Fedea.

Beste jarduera bat herritarren esku alegazioak aurkezteko jarritako zirriborroa ikusi duen entzunaldi publikoko prozeduran datza. Egun, testuak barne-izapidetzarekin jarraitzen du, eta datorren urteko lehen lauhilekorako Dekretuak EAEko Erlijioen arteko Kontseiluaren funtzionamenduari estaldura emango diola aurreikusten da.

Bi egiturek, ADOS Batzordeak eta CIVEk, modu osagarrian funtzionatuko dute; izan ere, gai batzuk modu espezifikoan aztertuko dira lehenengoan, eta beste batzuk ikuspegi zabalago batetik, hainbat konfesiok dituzten kezkek baitira.



ERLIJIO ANIZTASUNA TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO IV. KONGRESUAN

Pasa den urrian 16an eta 17an Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko IV. Euskal Kongresua garatu egin zen Bilbon, Eusko Jaurlaritzako Bizikidetza Aniztasunerako eta Belaunaldien Arteko Elkartasunerako Zuzendaritzak eta Berean, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako euskal Zerbitzuak antolatuta. Besteak beste, jatorri atzerritarreko pertsonen zuzendutako diskriminazioaren hainbat alderdi jorratu ziren. Horietako bat erlijioaren bateko partaide izatearekin lotuta dago. Era berean, topaketako mahai batek erlijio-arrazoiengatik diskriminazioaren aurkako borroka egindako ekarpenak aztertu zituen.

Bertan ordezkaritza instituzional bat egon zen Inés Mazarrasaren (Pluralismo y Convivencia Fundazioko zuzendaria) eskutik, erakunde erlijiosoen ordezkaritza bat Aziz Messaoudiren (FIVASCO Euskal Herriko Islamiar Federazioaren presidentea) eskutik eta militantziaren esparruko ordezkaritza bat Chaimaa Boukharsaren (arrazakeriaren aurkako ekintzaile musulman eta dekoloniala) eskutik. Hiru ikuspegiek ikuspegi panoramiko bat ematen lagundu zuten, politikoki polarizatutako gizarteetan gero eta presentzia handiagoa duen fenomeno bati aurre egiteko jarraitu daitezkeen estrategiei buruz.



Minutu bateko isilune hunkigarria San Mamesen, Gazako genozidioaren biktimengatik. Irudiaren iturria: EITB

PALESTINAREKIN ELKARTASUNA PALESTINAKO FUTBOL SELEKZIOAREN ETA EUSKAL SELEKZIOAREN ARTEKO PARTIDA

Azaroaren 15ean, larunbata, zirkular honetan nabarmentzeko eta ospatzeko moduko gertaera bat izan zen Bilboko "Katedralean": Palestinako futbol selekzioaren eta Euskal Selekzioaren arteko partida bat, Euskadiko herriak palestinar herriari dion elkartasunaren erakusgarri. 51.000 pertsona baino gehiago joan ziren harmailetara Palestinan bakea lortzearekin duten konpromisoa adieraztera. Azken markagailuak (etxeko selekzioaren aldeko 3-0 batekin) ez zuen axola izan neurketaren beste emaitzaren aurrean, zalantzarik gabe garrantzitsuena eta zirrargarriena: Palestinaren existentzia ikusaraztea, bere futbol selekzioa bezalako sinbolo baten bidez. "Thank you Basque Country" zioen jokalaria palestinarren pankarta batek partida amaitzean. Eskerrik asko Euskal Herria.

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzordea da, euskal erakundeek eta Euskadiko komunitate islamikoen arteko lankidetzak sustatzeko. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Harrezkero, urtean hainbat aldiz bildu da. Batzorde honetan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoak osatzen dituzten pertsona guztiek hartzen dute parte. Bilera horietan bizikidetzak sustatzeko lan egiten da, eta Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea da helburua.